

GUNEEN ALOKAIKUA ESKATZEKO PROZEDURA

Instalazioen alokairua kudeatu egingo da Bizkaiko Campuseko barneko eta kanpoko espazioak erabiltzeko arautegiari jarraituta, eta "Espazioen Erreserba" izeneko aplikazioaren bidez egingo da.

Dena dela, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko edozein espazio, zerbitzu, ekipamendu edota instalazio alokatu nahi duenak, lehenengo eta behin, alokairua koordinatzen duten pertsonekin jarri beharko du harremanetan:

Loli Alonso | 94 601 **5165** | lola.alonso@ehu.es | Dekanotzako 2. solairua, bulegoa: 2.04

Izaskun Vergara | 94 601 **5165** | izaskun.vergara@ehu.es | Dekanotzako 2. sol., bul. 2.04

Bi tarifa mota daude alokatzeko espazio eta instalazioen ezaugarrien arabera:

1. LOKALAK ERABILTZEKO PREZIOAK

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko gradu aretoa, eraikineko sarrera, informatika edo multimedia gelak eta aretoak alokatzeko tarifak UPV/EHUK urteko tarifetan ezarritakoak izango dira, eta oro har horietan erabili behar dira. Ondorengo taulan jasotzen dira tarifak:

Lokal mota	1. TARIFA Ordu solteak orduko prezioa	2. TARIFA Egun bat 8:00 – 20:00	3. TARIFA Egun erdia 8:00 – 14:00 edo 14:00 – 20:00
Gradu aretoak (CSC Auditorioa)	100 €	750 €	375 €
Eraikinen sarrera	150 €	900 €	450 €
A motako gelak (100-150 lagun)	60 €	540 €	270 €
B motako gelak (50-100 lagun)	40 €	360 €	180 €
C motako gelak (0-50 lagun)	20 €	200 €	100 €
Informatika gelak:			
25 ordenagailu gehienez	130 €	1.150 €	575 €
25 ordenagailu baino gehiago	150 €	1.370 €	685 €
Multimedia gela/aretoa	40 €	1.260 €	630 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

- Lokalak hiru modalitateen arabera aloka daitezke: 1. tarifaren, 2. tarifaren eta 3. tarifaren arabera. Azken bietan (2 eta 3) gehiegizko denbora kobratzeko 1. tarifa aplikatuko zaio benetan emandako gehiegizko ordu kopuruari.
- Ordu zatiak goitik biribilduko dira ordu erdia gainditu bada, edo behetik, ordu erdira heldu ez bada.
- Tarifaren modalitatea ezin izango da aldatu lokalak erabiltzen hasi ondoren.
- Tarifa espazioaren alokairua bakarrik sartzen da. Tarifa horri gehitu beharko zaio lokala garbitzeko lanaren kostua eta zerbitzua emateko behar diren langileak (atezaina, ikus-entzunezkoen teknikaria etab.).
- Aurrekontuari fidantza gehituko zaio (alokairuaren kostuaren %25, BEZ barik) eta diru kopurua UPV/EHUKo aurrekontuen kontuan sartuko da.



6. Lokalak erabiltzen amaitutakoan, benetan erabilitako orduen datuak bidaliko dira eta faktura jaulkiko da.

2. IKUS-ENTZUNEZKOETARAKO INSTALAZIOAK ERABILTZEKO TARIFAK

Instalazio mota	1. TARIFA Ordu solteak orduko prezioa	2. TARIFA Egun bat 8:00 – 20:00	3. TARIFA Egun erdia 8:00 – 14:00 edo 14:00 – 20:00
Audiolab lokutorioak, 2., 3. edo 4.a	60 €	540 €	270 €
Postprodukzioko audilab (1. lok.)	100 €	750 €	375 €
Bideolab Bideo postprodukzioko gela	60 €	540 €	270 €
Bideoa editatzeko gela (25 ordenagailu)	130 €	1.150 €	575 €
Plato TB 2 + Kontrol Gela 2	100 €	750 €	375 €
Gesell Laborategia	130 €	1.150 €	575 €
Cati Laborategia	150 €	1.370 €	685 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

1. Gelak eskola orduetatik kanpo bakarrik egongo dira erabilgarri, eta fakultatearen beraren irakaskuntzaren antolakuntzak izango du lehentasun osoa.
2. Tarifa horien barruan ez daude sartuta teknikarien laguntza, muntaketa lanak edo aparteko prestakuntza lanak.
3. Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jarri, sarrerarik kobratu edo saltokirik jartzeko.
4. Grabazio ekipoetarako alokairu tarifak ondoren zehaztutakoak dira; postproduzioko gela edo bideoak editatzeko gela alokatzean %20ko beherapena egingo da gelarekin batera ekipoak alokatzen badira:

Ekipo mota	1. TARIFA Egun bat 8:00 – 20:00	2. TARIFA Bi egun 8:00 – 20:00	3. TARIFA 4 egun 8:00 – 20:00	4. TARIFA Astebete 8:00 – 20:00
Kit de grabación ENG básico + Micrófono de Mano	100 €	180 €	320€	500 €

Alokairurako plan pilotu honetarako erabiliko dira irakaskuntzako premietarako gutxien erabiltzen diren ekipoak.

Ekipo hauek alokatzeko aseguru poliza bat izan behar da ekipo horien arrisku orotako estaldurarekin.

Ekipo horiek alokatuko dira ikastegiak horretarako daukan arautegiari jarraituta. Arautegia ondoko web orrian dago eskuragarri:

<http://www.ehu.eus/eu/web/gkz-csc/gune-eta-instalazioen-alokairua>